

# «Nahi denetik» baino «ahal denetik» ondu du hirugarren eleberria Lourdes Oñederrak

Indarkeria aspalditik jorrazteko asmoa izanik, «nobelaraino iristeko indarra» hartu ostean idatzi du 'Azken batean'

JON AGIRRE

DONOSTIA. Nobela bat «nahi denetik» baino «ahal denetik» eta «ahal duen moduan» idazten dela argi du Lourdes Oñederra (Donostia, 1958) hizkuntzalari, ikerlari eta idazleak. Edo behintzat bere kasuan hala dela. «Ez zait batere erraza gertatzen istorioaren muntaketa, buruan egitura-teea istorioa eta idaztea gero. Eta alderantziz, idatzi ahal muntaketa hori moldatu eta birmoldatzea», azaldu zuen 'Azken batean' (Erein) liburuaren aurkezpenean.

Idazketa prozesua eta eleberria «protagonistetatik», Elisa eta Elixabete ama-alabarik eta haien harremana edo harreman ezatik egin du. Agerraldian xehatu zuenez haien arteko erlazioaren «korapiloetan harrapatuta» geratu da eta «txangoa haien eskutik, isiltasunetatik» egin duela, nagusiki «indarkeria giro» horrek, ETArene zein bestelakoak sortua.

Indarkeriaren gaia aspalditik jorratu nahi izan du, esan zuenez. «Eugenio del Río pentsalariari irakurri nion gaizkia izan ote zitekeen ETaren sorreraren arrazoiak eta luzaroan utzi zidan hura esploratzeko arra». Hala, «marra lodiekien marraztutako gaiztoa eta kaltegarria» den X pertsonaia sortu zuen. Haren heriotzak Elisari «barrua mugitzen» dio eta oroitzapen «frag-


mentarioen» uholdea piztu. Irakurleak ama-alabenak modu txandakatu jasoko ditu, biak ala biak hirugarren pertsonan. Horiek utzitako zaurien zama, sekretu mingarriak tarteko, agerikoa egingo zaio irakurleari.

Orain arte «mikrofono aurreko aukerak», esaterako hedabideetan idatzitako iritzi-artikuluetan, izan dituen gaia landu du, baina «nobelaraino iristeko indarra» har zezan denbora behar izan du. «Nobela ez da nahi denaz idazten, barrenetik ateratzen denaz baizik. Emozio horrek jarraitza bultzatzen zaitu edo ematen dizu erre-

gaia ibilbide baten barrena abiatzeko. Ni ulertu nahiak eramaten nau idaztera», azpimarratu zuen.

Bidean, kontatu zuenez, funtsezkoa izan zen biktimekin izandako harremana. «Gesto Por la Paz nire bizitzan gurutatu izanak, nire mundua eta giroa zabaldu zituen. Biktimak ezagutu eta lehenestea ekarri zidan. Beti egon naiz ETak egindakoen aurka, baina pasarazi zidan, eskematikoki eta oso zabar, gauza batzuk pentsatzetik sentitzera. Ekarri zidan nire oso barreneko pers-

Lourdes Oñederra,  
Donostian egindako  
agerraldiaren aurretik.  
LOBO ALTUNA



AZKEN BATEAN  
LOURDES  
ONEDERRA

Argitaletxea: Erein.  
Narratiba, 159.  
Orrialdeak: 160.  
Prezioa: 19,5 euro.



pektibaren berrantolaketa, oso gogorra, nire ordura artekoa mina hartzerainokoa».

Emakume ikuspegia

Aurreko bi eleberrietan bezala, protagonista nagusiak emaku-

mezkoak dira, eta erabakia ez da ausazkoa izan. «Emakumeon gorputzaren aldarrikapena, gure lekuarena, kalera» ateratzen ari dela argi du, nahiz eta oraindik bidea egiteko geratzen den «gizartearen eta batez ere gure bakoitzaren artean». Hala, indarkerien alderaketa egin zuen, bata, «indarkeria patriotiko» deitu zuena», bestea baino «barkagarriagoa» dena. «Norbaitez emakumeak fisikoki molestatzen dituela esatea adarrrak eta buztana jartzea da. Herri honen askatasunarengatik egindako mina isilpean gorde nahi genukeela dirudi. Gizarteari egindako kaltea maila kolektiboan emakume bati eraso matxistak uzten dion orbanarekin edo zauriarekin pareka daitekeela uste dut. Agian horregatik utzi dut nobelaren istorioa atera zitzaidan bezala», gehitu zuen.

Agerraldian zen Ramon Saizar bitoriaren aipu bat baliatu zuen hausnarketa abiatzeko. «Ondo esan zuen, eta baten batek ez zuen hain ondo ulertu, normala zela euskaraz idatzitako literaturan presenteago egotea ETA, etakideak, etab. haien biktimak baino, hain zuzen ere gertuago izan ginelako, izan dugulako eta dugulako. Mundu eta giro horretan gundelako, ados egon ala ez, baina hori nobelan bigarren mailakoa da, ez da saiakera. Beste gauza bat da idazleak bestelako adierazpenetan honetaz edo hartaz zer pentsatzen duen».

Familia eta isiltasuna

Tartearen dira, noski, bestelako gaiak ere indarkeria giroaz gain: familiarterko oroitzapen, isiltasun, giro eta ika-mikak; denboraren kontzeptzioa eta zurrumbilao, zahartzaroa eta bakardadea, biek bizi duten maitasunaren galera –alarguna lehen, banandu berria bigarrena– eta honekin loturik senar eta aita zenaren bizitza eta memoria «in-absentzia» bada ere eta bizitza berari buruzko hausnarketa. Guztia «idazlearen estilo intimotik, xehetasunez josia», inazio Mujikak goratu bezala.

## Estrenos internacionales y un homenaje a David Lynch en el festival de cortos Donoskino

I. E.

SAN SEBASTIÁN. El festival de cortometrajes Donoskino, que alcanza este año su novena entrega, se celebrará del 8 al 11 de octubre en el Teatro Principal. Este año se proyectarán un total 23 cortometrajes de todo el mundo con una programación variada en origen y temática.

Uno de los grandes atractivos de esta edición es el estreno del último proyecto producido por George R.R. Martin, 'The Ugly Chickens', adaptación cinematográfica de un texto de Waldrop, reconocido autor de ciencia ficción.

El festival rinde tributo al fallecido David Lynch, proyectando fuera de concurso su cortometraje remasterizado 'What Did Jack Do?' en la clausura. La sección internacional cruza fronteras con producciones irlandesas, estadounidenses, belgas, italianas, australianas y sudafricanas que se disputarán alzarse con los honores finales.

En lo que a producción vasca respecta, la sección Etxean Shortuak incluye tres cortos que abordan temas universales: 'Tito' de

Javier Celay, 'Kume' de Xabier Larrazabal y '29 de febrero' de Diego Fandos, mientras que la producción estatal cuenta con once títulos. Destacan, entre otros, los últimos trabajos de Lucía G. Romero, Manuel Manrique y José Luis Lázaro.

La ceremonia de clausura, presentada por el humorista Sergio Arróspide, entregará cuatro premios oficiales y contará con un jurado compuesto por Lucía Baskaran, Carlos Miñondo y Naiara Arnedo. Todas las sesiones serán gratuitas, con invitaciones disponibles en la taquilla del Teatro Principal en horario de 11.30 a 13.30 y 17.00 a 20.00. Con una programación diversa y ambiciosa, el festival reivindica el corto como forma narrativa plena y reflejo de las inquietudes actuales, prometiendo dejar una huella duradera en apenas minutos de metraje.

## Bookstart reparte por Gipuzkoa 1.000 packs gratuitos de libros para fomentar la lectura infantil

DV

SAN SEBASTIÁN. La cuarta edición del proyecto Bookstart, impulsado por la Diputación Foral y la Asociación Mestiza, busca fomentar la lectura entre los menores de Gipuzkoa distribuyendo gratuitamente 1.000 paquetes de libros gratuitos en euskera, castellano e inglés. Este año, la iniciativa amplía su alcance a nueve municipios, incluyendo nuevas localidades como Ataun, Idiazabal y Legorreta, su-

mándose a aquellas que ya participaban como Alkiza, Larraul, Lasarte-Oria, Ordizia, Orio y Urnieta. La iniciativa ofrece packs adaptados para niños con necesidades especiales, promoviendo así la inclusión y el acceso universal a la cultura desde la primera infancia.

Cada Liburupack contiene tres libros multilingües, materiales informativos para familias, rimas, canciones y un código QR con acceso a actividades gratuitas de Liburu Baby Kluba en las bibliotecas locales, donde se llevarán a cabo las entregas. Inspirado en un programa británico y formando parte del consorcio europeo EURead, Bookstart busca integrar la lectura en la vida cotidiana de los niños, contribuyendo a una sociedad más crítica, diversa y cohesionada desde sus primeros años.